

IKASTETXEEK GARATURIKO HIZKUNTZA PROIEKTUAK

2009-2010 ikasturtea

Euskarazko irakaskuntza eskaintzen duten eskoletako zuzendaritza eta irakasle taldeek, erregulariki abiatzen dituzte eskola eremutik kanpo euskararen erabilpenaren bultzatzeko ekimenak : beste eskolekiko trukaketak, ahozkotasanaren bultzatzeko kultura tailerrak, animazio desberdinak ...

Testuinguru soziolinguistikoa kontutan hartuz, sail elebidunean eskolatuak diren ikasleen gehiengo nagusia familia erdaldunetatik heldu delarik, gisa honetako egitasmoek azkarki laguntzen dute sail elebidunen egonkortzen, izan ere, eskola ordutegitik haratago euskararen erabilpenaren jendarteratzeko gaitasuna baitute, eskolaren baitan euskararen baliatzea sustatuz, kurtsoetatik kanpo, bide batez ikasleen motibapena lagunduz bai eta familia eta irakasleena ere.

2008-2009 urteko ikastetxeen proiektu deialdiaren bilan baikorraren ondorioz, eskolek eramandako hizkuntza proiektuen laguntzen segitzeko, 2008ko abenduaren 17ko Administrazio Kontseiluan **60 000 €ko** fondo baten martxan ezartzea erabaki zen, 2009-2010 urteko ikastetxeen proiektu deialdiarentzat .

Ikastetxeei 2009ko ekainean proiektu deialdiaren irekitzea jakinarazi zaie. 2009-2010 ikasturtean iraganen diren euskarazko proiektuak errezibitzeko azken epea 2009ko irailaren 21ean finkatu zen.

Aurten, 73 eskolek 152 proposamen egin dituzte (ikastetxe publikoak, irakaskuntza giristinoko ikastetxeak eta Seaska federazioko ikastetxeak).

Proiektu deialdiak arrakasta anitz ukan du aurten: parte hartu duten ikastetxeen kopurua et proiektu kopurua kasik doblatu dira.

Proiektu deialdi honen aberastasuna eta aniztasuna azpimarratzekoak dira: gai desberdin anitz hunkituak izan dira eta proposatu diren proiektuak interesgarriak.

2008ko azaroaren 12an Cohéré anderea, euskararen irakaskuntzaren kargudun ikuskaria, Sarraillet jauna Errektoretzako euskararen irakaskuntzako kargudun, Haran jauna et Aycaguer jauna, aholkulari pedagogikoak, Etchegaray jauna, SEASKAKO zuzendari pedagogikoa, Oxandabaratz anderea irakaskuntza giristinoko euskararen irakaskuntzako aholku pedagogikoa eta EEP bildu dira proiektu guzien aztertzeke.

Batzorde teknikoak hautaketarako irizpide nagusi gisa honako hauek definitu ditu :

- Proiektuen hizkuntzaren dimentsioa
- Ikaslearentzat eskola mailako ikasketarekiko osagarritasuna
- Diru galdea ikastetxeak zuzenean egina izatea
- 2008-2009 ikasturteko proiektua
- Inbertsioak ez kontutan hartzea
- Hezkunde Nazionalaren dirulaguntza EEPren dirulaguntzaren barne sartzea
→ $HN + EEP = X€ = EEPren\ engaiamendua$

Proiektu bakoitza aztertu eta ebaluatu da ondoko sailkapenaren bitartez :

- 1 → % 60 galdetutakoaren arabera
- 2 → % 40 galdetutakoaren arabera
- 3 → % 20 galdetutakoaren arabera

Proiektu batzu ez dira onartuak izan ondoko arrazoinengatik:

- Epez kanpo errezibitu ditugun txostenak.
- Ez osatuak ziren txostenak.
- Hizkuntzaren dimentsioa ez aski aintzinerat ezarria.
- Euskararen erabilpena ez aski garrantzitsua.

Zembaki zombait:

- ✓ 2009-2010 ikastetxeen proiektu deialdian parte hartzea:

	Ikastetxeak		Proiektuak	
	<i>Kopurua</i>	<i>%</i>	<i>Kopurua</i>	<i>%</i>
SEASKA federazioko ikastetxeak	20	28	36	24
Irakaskuntza girstinoko ikastetxeak	28	38	82	54
Ikastetxe publikoak	25	34	34	22
Orotara	73	100	152	100

- ✓ Proposatutak izan diren proiektuen budgetak et diru laguntza eskaerak:

	Budgeta	%	Dirulaguntza eskaera	%
	SEASKA federazioko ikastetxeak	78 644,3 €	36	45 807,48 €
Irakaskuntza girstinoko ikastetxeak	69 264,91 €	32	35 416,36 €	31
Ikastetxe publikoak	71 205 €	32	31 761,35 €	28
Orotara	219 114,21 €	100	112 985,19 €	100

- ✓ Diru laguntzaren banaketaren proposamena:

Gaika

Gaia	Proposatutako proiektu kopurua	Lagundu ditugun proiektuak		
		<i>Kopurua</i>	<i>Dirulaguntza</i>	<i>%</i>
Ikusgarriak	53	44	24 176,20 €	37
Egonaldiak	19	18	13 654,60 €	21
Irakurketa idazketa	14	10	9 305 €	14
Irratia bideo zinema	10	9	4 443,04 €	7
Kirola	30	23	6 756,00 €	10
Musika	14	7	2 546,40 €	4
Artea	10	6	1 785,75 €	3
Beste	2	2	2 294,20 €	4
Orotara	152	119	64 961.19 €	100

Sareka

SAREAK	Proposatutako proiektu kopurua	Lagundu ditugun proiektuak		
		<i>Kopurua</i>	<i>Dirulaguntza</i>	<i>%</i>
SEASKA federazioko ikastetxeak	36	26	25 031,68 €	38
Irakaskuntza giristinoko ikastetxeak	82	65	21 174,76 €	33
Ikastetxe publikoak	34	28	18 754,75 €	29
Orotara	152	119	64 961,19 €	100

Orotara **64961.19 €** banatzea proposatzen dizuegu, jakinez, alde batetik, guk emandako dirulaguntzari kendu beharko zaiola DRAC-ak eta Hezkunde Nazionalak ikastetxe batzuer emandako dirulaguntza eta bestalde, 2008-2009 urteko proiektu deialdiaren ondotik ohartu garelako usu, bukaeran emaiten den dirulaguntza ikastetxeek hastapenean galdegiten dutena baino ttipiagoa dela.